

Euskal Herrian gizartea eta eliza

Luzio Uriarte

**Adsis kristau-komunitateen mugimenduko partaidea
eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea**

Oraintsu arte Elizaren —katolikoaren— eta euskal gizartearen arteko harremanak estuak izan badira ere, azken hamarkadetan egoera aldatu da zeharo. Artikuluan aldaketa horren zenbait faktore aztertzen dira. Oro har, hiru hipotesi agertzen dira: batetik, Eliza Katolikoa berandu heldu da modernitateara, modernitate bera xehatuta zegoenean; bigarrenik, euskal kultura ere berandu heldu da modernitateara eta, berebat, modernitateara heltzen den elizara; azkenik, euskal gizartearen eta kristautasunaren artean aldaketa bereziki sakona eta azkarra gertatu da azken hamarkadetan. Bestaldetik, euskal gizartean gertatzen den prozesua Mendebaldeko gizartearen testuinguruan aztertzen da. Artikuluak modernitateak eta modernitateetik sortzen diren interpretazio berriek erlijioarekin hartzen dituzten harremanen berrituratzea erakusten du.

GAKO-HITZAK: Erlijioa · Kristautasuna · Modernitatea · Euskal gizartea.

The relationship between the Catholic Church and Basque society has always been relatively close and friendly. In recent decades however, this relationship has undergone a significant change. The factors involved in this social change have been analyzed in the article. The author works on three hypotheses: the first hypothesis claims that the Catholic Church has arrived at modernity too late and the second states that the Basque culture has arrived late at modernity, as well as at modern-day Church. Finally, the third hypothesis asserts that the relationship between the society and the Church in the case of the Basque country has changed considerably and rapidly. The whole process is studied in the context of Western culture. The social configuration of religion has been changed during late modernity and this is another context in which this subject should be studied.

KEY WORDS: Religion · Christianity · Modernity · Basque society.

Jasotze-data: 2009-10-20. *Onartze-data:* 2009-10-26.

Sarrera¹

Oraintsu arte Elizaren —katolikoaren— eta euskal gizartearen arteko harremanak oso estuak izan dira. Aldaketa-garaiotan bizitzea egokitu zaigu; etorkizuna nolakoa izango den jakin gabe, harreman hori, gaur egun, gero eta ahulagoa dela ematen du. Nolabait, harreman horren ahulezia hazkorra hausnartu nahi du artikuluko honek: ahulezia horretan dauden zenbait faktore arakatzea eta, bestaldetik, agertzen diren joerak antzematea.

Gaiari heldu baino lehen, lerro hauek idazten dituenak baldintzatuta dagoela onartu behar du. Beharbada, beste baldintzetatik beste ikuspegi bat agertuko litzaioke idazleari. Hurrengo paragrafoetan azaltzen diren ideiak kokatzeko —edo kokatzen errazteko—, gogoeta hauen azpian dauden zenbait baldintza azaltzea komenigarria dela uste dut.

1. Ez dugu sinesten nahi duguna, ahal duguna baino. Gure sinesmena baldintzaturik dago beti. Baietzapen horrek ez du ukatzen pertsonaren askatasuna, baina askatasun hori beti kokatua dago. Sinesmen erlijioso bat eta sinesteko modua bizitza pertsonalaren esperientziari lotzen zaio neurri handi batean.
2. Amets asko eta aldaketa asko egin nahi zituen belaunaldi bateko partaidea naiz. Bai fededunek, bai fedegabekoek, ondorio praktikoak ikusi nahi genituen, benetan giza bizitza aldatzen duten aukerak egin nahi genituen. Fede erlijiosoak etikaz beteta zegoen, eta konpromiso soziala, ateo batek eginga izan arren, fedez beteta zegoen. Urteak joan, urteak etorri, amesten genituen aldaketak ez dira etorri. Beharbada, gauzak uste genuena baino korapilatsuagoak ziren (dira). Hala ere, ez naiz eszeptikoa, ez horixe! Argi dago edozein ametsak duela balio; argi dago ez dela nahikoa amets onak izatea. Belaunaldi bateko kristaua naiz, amets asko egin dituen belaunal-dikoa. Edonola ere, kristautasunaren barnetik eginda daude ondorengo oldozpenak.
3. Erlijioa, fedea, kristau izatea, eliza ezin ditugu pentsatu eta ikusi modu isolatuan, elementu solteak izango balira bezala. Kultura, gizartea, ekonomia eta erlijioa txirikordatuta daude. Askotan, elementu horien artean egiten diren bereizpenak analitikoak dira; agian, bizitza gure pentsamendua baino batuagoa da.
4. Gogoeta hau Euskal Herrian egin nahi dut, Euskal Herriko orainaldia eta etorkizuna pentsatuz. Euskal Herrian izandako prozesua —gizartearen eta erlijioaren arteko harremanari dagokiona— Mendebaldeko gizarteetan gertatutakoaren antzekoa da eta, beraz, Mendebaldeko testuinguruan ulertu behar dugu. Euskal Herriko gizartea, Euskal Herrian dagoen eliza Mendebaldeko gizartearen —kulturan— kokaturik daude. Ezin dugu ulertu gure egoera eta gure bilakaera marko zabal hori ez badugu kontuan. Eraginak eragin, Euskal Herriak baditu zenbait ezaugarri, eta ezaugarri horiek

1. XXV. Gogoeta Astearen eskainitako mintzaldietako bat da hemen agertzen den artikulua hau. Aurten, gogoeta-aste hori Loiolan egin da, abuztuaren 31tik irailaren 4ra arte. Aste horretan Euskal Herriko leku ezberdinetako kristauak parte hartzen dute. Aurtengo Gogoeta Astearen izenburua ondorengo izan da: «Euskal Herrian Jesusi begira».

kontuan izan gabe nekez uler dezakegu gure orainaldia eta gaur egun ditugun bidegurutzak. Dena den, kontuan izan dezagun Euskal Herria ez dela esanahi bakarreko hitza. Izenaren eta izanaren arazoa dugu, eta ez da arazo makala. Izen-anbiguotasun horretan mugituko naiz, gure gaurko egoera oso anbiguo baita eta, gainera, gogoeta honen helburua ez baita anbiguetate hori gainditzea.

5. Modernitatearen eta kristautasunaren arteko harremanak pentsatzerakoan, azpian ideia bat dago, hitz gutxitan azal daitekeena —arrazoitzea luzeagoa izango litzateke, baina ez da lan honen helburua—: kristautasuna berandu heldu dela modernitatera eta modernitatearekin hitz egin nahi izan dueneko, modernitatea hiltzear zegoen.
6. Euskal Herria ere berandu heldu da; baina berandu ailegatze horretan bi alde daude: batetik, berandu heldu da modernitatera; beste aldetik, berandu ere heldu da kristautasun modernora —modernitatera berandu heldu zen kristautasun modernora—. Gogoeta honetan, beraz, gure herriaren atzera-pena bikoitza izan da —ba ote da gaur egun?—; atzerapen hori ez da dohainik izan, ondorio handiko prezioa ordaindu behar izan da.

Gure hausnarketaren ibilbideak bi geltoki nagusi izango ditu. Lehenengoan, kristautasunaren eta modernitatearen artean saretzen diren harreman korapilatsuak aztertu nahi ditugu. Bigarrenean, berriz, gure lurraldera gatoz eta harreman horiek zer-nolakoak izan diren gure artean planteatu nahi dugu.

1. Modernitatea eta kristautasuna

Mendebaldeko gizarteetan, kristautasunak gizartearekin zituen loturak aldatu ditu modernitateak. Modernitateko etorrerak muga bat markatzen du gizartearen bilakaeran; gizartearen erlijioa egoteko modua eta erlijioaren beraren esanahia aldatzen dira.

Zer da modernitatea? Esanahi zientifikoa eta teknikoa, demografikoa, ekonomikoa, politikoa eta kulturala ditu kontzeptu horrek. Erro luzeak eta sakonak ditu modernitateak, antzinako denboretan erroturik dago modernitateko iturria; baina bere agerpen nabaria ilustrazioarekin azaltzen da. Zientziak mundu-ikuskerara aldatzen du eta, neurri batean, erlijioak eskaintzen zuen mundu-ikuskerarekin kontrajartzen da. Galileo, Darwin, Freud, besteak beste, kontrajarturiko ikuskeraren agerpenak dira. Iraultza zientifikoak posibilitate berriak eskaintzen dizkie ekonomiari eta industriari. Demografiako datuak aldatzen dira: biztanleriaren hazkunde nabaria (jaiotza-tasa mantentzen da eta hilezkortasuna jaisten da), hirietarako emigrazioa, nekazari-herriak husten hasten dira, hiritar bizimodua zabaltzen da. Politikari dagokionez, antzinako erregimena desagertzen da eta demokraziaren printzipioa hasten da zabaltzen: hortik aurrera inor ez da izango presidentea edo erregea Jainkoari esker.

Gauza asko aldatzen ditu modernitateak, baina aldaketak aldaketa, modernitatea harago doa: kultura berri baten sorrera da. Beraz, bizitza, mundua, gizakia beste modu batean interpretatzen dira. Antropozentrismoa bilakatzen da, gizakia bizitzaren eta munduaren zentroan kokatzen da. Gizakiaren helburua zorienta-

sun bada, zorientasun hori ez da lortzen, ez da uzten beste mundu batean, mundu honetan baizik. Zorientasuna edo betetasuna lortzeko, gizakiak tresna berezi bat dauka: bere arrazoimena. Modernitateko pentsalariek salatzen dituzte arrazoimenaren zeregina mugatzen duten indarrak; arrazoimena da askatasunaren iturria, betetasunaren iturria. Zenbait gako-hitz lotzen zaizkio arrazoimenari: garapena, askatasuna, betetasuna, errealizazioa. Ildo horretatik, Kanten aldarrikapenean, Ilustrazioa gizakiaren adingabeko arotik irtetea da; arrazoimenaren erabilera da, hain zuzen ere, gizakiari heldutasuna eman diezaiokena.

Modernitateak ekarri duen kulturari dagokionez, beste ezaugarri esanahitsu bat aipatu behar dugu, oso ondorio handiak dituen ezaugarria eta ondo ulertu behar duguna, modernitateko krisia ondo interpretatzeko. Erlijioak mundu-ikuskerak bakar bat eskaintzen zuen; erlijioaren interpretazioan, mundu osoa zentzuduna zen, zentzu bat zeukan. Modernitateak erlijioaren lekuan arrazoia —arrazoi ilustratua— jartzen du; hasiera batean arrazoi ilustratuak mundu-ikuskerak orokor bat eskaini nahi du, baina arrazoiaren ahalegin horrek porrot egiten du; munduko interpretazioak batasuna galtzen du eta interpretazio anitz sortzen dira. Hortik aurrera, sistema kulturala zatituz, aniztasuna kokatzen da bere baitan; aniztasun kulturala da, hain zuzen ere, Mendebaldeko kulturaren ezaugarri nagusietako bat.

Horiek horrela, kristautasunaren tradizioa eta modernitatearen proiektua kontrajartzen dira. Katolizismoaren tradizioan, Vatikanoko I. Kontzilioa da, hain zuzen ere, etendura eta kontrajarpen horren lekukoa.

Beraz, kristautasunak gizartearekin eta kulturarekin zuen oreka apurtzen du modernitateak. Hortik aurrera, kristautasuna bi desiraren artean erdibiturik dago: premodernitate itzultzeko desira eta modernitatearekin hitz egiteko desira. Edonola ere, erlijioa gizartearen zentrotik erauzten du modernitateak eta, hasierako proiektuan, erlijioaren mailakako desagerpena iragartzen du. Modernitateak ez du balioesten erlijioa eta kristautasunak oso argi ikusten du hori.

Vatikanoko II. Kontzilioa, modernitatearekiko jarrera-aldaketa egin nahiz, modernitatearen ekarpenak onartzeko prest dago eta elkarrizketa leiala egin nahi du. Baina Eliza Katolikoak erlazionatzeko erabakia hartzen dueneko, modernitatea krisian sartzen ari da, modernitatearen proiektuak porrot egiten du. 60ko hamarkadak kontzientzia berezia dakar modernitateari buruz; pentsamendu kritikoa zabalitzen da eta modernitateak ekarriko zuen garapenean fedea galtzen hasten da. Hori oso egoera bitxia da Elizarentzat, zeren eta justu modernitateak bere xarma galtzen duenean eta krisian jausten denean, modernitatearekin hitz egin nahi baitu Elizak; are gehiago, bere egitura eta pentsaera moderno bihurtu nahi ditu.

Denboraren iragateak beste bilakaera edo egoera bitxi baten ikuspegia ematen digu, gure gogoetari guztiz lotzen zaiona. Modernitateak gutxien eta erauzten du erlijioa —kristautasuna batez ere—, baina modernitatearen proiektua gauzatzeko denean, modernitatea bera da krisian jausten dena. Lau korrante dira, oro har, modernitateko krisia interpretatu nahi dutenak: kontserbadurismoa, neoliberalismoa, postmodernismoa eta mugimendu kritikoa. Baina bilakaera horretako kontu bitxia ez dugu esan oraindik: modernitatea kritikoki interpretatzen duten

korronte guztiek erlijioaren presentzia bereganatu nahi dute. Gaur egun argi ikusten dugu erlijioa ez doala desagertzeraz; baina horrek ez du esan nahi erlijioak jarraituko duela orain arte egon den bezala edo guk ezagutu dugun bezala.

Hortaz, modernitatea kritikatzan duten interpretazio horietako bakoitza ikusiko dugu eta, horrekin batera, interpretazio horietako bakoitzak nola ikusten duen erlijioaren zeregina. Modu azkarrean, plano orokor bat egingo dugu eta gero zehaztuko dugu.

Plano orokor hori egiterakoan, modernitateko mamia zertan datzan kontuan izan behar dugu. Aurrean aipatutakoa gogoratuz, modernitateko muina hiru ardatzetan biltzen da: batetik, ardatz ekonomiko eta zientifiko teknikoak; bigarrenik, estatu modernoko administrazio-antolamendua; azkenik, ardatz kulturala. Noski, hiru ardatzok oso lotuta daude, baina analitikoki bereiz ditzakegu. Hiru ardatz horiekiko jarreran bereizten dira modernitateari buruzko diagnostikoak.

1. Kontserbadoreak.

Modernitatearekin oso kritikoak dira: Mendebaldeko kultura aldats beherako bidean —endekapen-bidean— jarri du. Emaitzak txarrak izanik, atzerako bidea egin behar da ahalik eta lasterren. Hala eta guztiz ere, kontserbadoreek ez dituzte gaitzesten modernitateko ekarpen guzti-guztiak; ekarpenetako bat onartzen dute: garapen zientifiko teknikoak; horrez gain, oso kritikoak dira beste emaitza guztiekin.

Kulturari dagokionez, Mendebaldea porrot egiten ari dela ozenki salatzen dute. Kultura handiko tradizioa da Mendebaldea; gizadiko gailurra dago Mendebaldeko klasikoetan. Modernitateak hiru bekatu egin ditu kulturaren eremuan. Batetik, kultura demokratizatu nahi izan du, ondare kulturalak guztiengana zabaldu nahi izan ditu; baina aukera hori egiterakoan, kulturaren maila jaitsi da, endekatu da. Jendeak, oro har, ez du balioesten garaiko ondare kulturala (arte klasikoa, filosofia klasikoa...). Bigarrenik, modernitateak pentsatu du berriak zaharra ordezkatzeko duela; printzipio hori teknikan eta zientzian egia izan daiteke; ez da egia, ordea, artean edo pentsamendu filosofikoan. Beraz, kulturari dagokionez, kontserbadoreen pentsamendua nahiko aristokratikoa da. Azkenik, Mendebaldeko kultura, aniztasuna onartzerakoan, ahultzen ari da, bizitzaren zentzua kolokan baitauka.

Estatuko antolamenduari dagokionez, demokraziarekiko mesfidantza erakusten dute kontserbadoreek. Demokraziak ez du ziurtatzen aukerarik onena edo erabakirik onena; ondoen prestatuta dauden pertsonak gobernuan egotea ez du ziurtatzen demokraziak. Gainera, demokraziaren sistema intentzio onekoa izan arren, berehalaxe endekatzen da. Politikako antolamenduari dagokionez, planteamendu aristokratikoaren alde agertzen dira kontserbadoreak.

Kontserbadoreentzat kristautasuna oso garrantzitsua da, kontserbadoreen proiektuaren muina kristautasunaren presentzia soziala berreskuratzean datza; kristautasuna bera baita kontserbadoreen proiektuaren indar legitimatzailea. Kristautasun kontserbatzailea da proiektu horrek eskatzen duen erlijioa.

2. Mugimendu kritikoak.

Kontserbadoreek egiten duten interpretazioarekin kontrajartzen da. Modernitatearekin kritikoak ere badira, baina kritika beste norabide batetik doa. Modernitateak porrot egin du bere asmoa ez duelako bete; modernitateak askapen-proiektua zen, eta askapen hori lortzeko tresna berezia arrazoia zen. Gauza biotan, bai helburuan, bai tresnan, modernitateak ez ditu atera ondorio guztiak; modernitateko bilakaera ez da koherentea izan, ez helburu horrekin, ez arrazoiaren erabilerarekin. Askapen-proiektuari uko egin dio eta gizarte liberala onartu du; demokrazia formalarekin konformatu da; ekonomian, kapitalismoaren planteamenduan harrapatuta geratu da; kontsumogizarte bihurtu da. Bestaldetik, modernitateko bilakaeran arrazoiaren zeregina murriztu eta txikitu egin da; ilustrazioko arrazoia konplexua da, alde asko ditu; Mendebaldeko kulturen, berriz, arrazoi instrumentala da garatu dena. Arrazoi instrumentalaren arabera, bitartekoaren arrazionaltasuna kontuan hartzen da, baina helburuen logika ez da kolokan jartzen. Mendebaldeko gizarteetan, modernitateko proiektua proiektu frustratua izan da.

Modernitateko interpretazio honen arabera, modernitateko proiektuarekin leial izateko, demokrazian sakondu behar da, demokrazia formaleko molde estuak gainditu behar dira; demokrazia zuzeneko bideetan sakondu behar da. Demokraziarekin batera, ekonomiaren ibilbidea birplanteatu behar da; gaur egun, ekonomia etekin pribatuari begira antolatuta dago. Pribatizatu beharrean, sozializatu behar da; ongizatearen estatua sakondu behar da; ondasunak eta produkzioaren etekinak ondo banatzeko, politika argi eta zuzena egin behar du estatuak.

Kulturari dagokionez, aniztasunaren aldeko apustua egiten du mugimendu kritikoak. Kulturaren esparruan, tolerantzia da, pertsonen eta gutxiengoaren bizimoduekiko begirunea zabaldu nahi dute. Balioei dagokienez, oinarriko gutxiengoko batzuk onartuz gero, askatasuna eta konfiantza da jarrera nagusia. Kulturaren esparruan agertzen den aniztasunean ez dute arazorik ikusten, aukera baino: gizartea aberasten da ikuspuntu asko izatean.

Azken urteetan, zenbait gai oso esanguratsu bihurtu dira, besteak beste, ondorengoak: ekologia, generoa, gutxiengo kulturalak, etnikoak eta erlijio-soak, emigrazioa, bakea... Gai horien inguruan mugimendu sozial berriak sortu dira. Mugimendu horiek esanahi kulturala eta politikoa dute, baina ez dira antolatzen alderdi politiko klasikoak antolatzen diren bezala; antolamendua oso malgua da.

Modernitateko interpretazio honetan erlijioa ere oso garrantzitsua da. Ezker- eta erlijioa elkarren kontra zeudeneko irudia apurtzen da interpretazio horretan. Neurri batean, ezker-klasikoko esparrua hartzen du interpretazio honek, baina ez dago erlijioaren kontra, are gehiago, erlijioaren zeregina modu positiboan balioesten da. Espiritualitateak gero eta esanahi handiagoa du, gero eta balioespen handiagoa du. Beraz, bizipen erlijiosoa garrantzitsua da, baina bizipen erlijioso hori ez da hartzen antzinako moldeetan; erlijioa eta erlijioaren instituzionalizazioa bereizten da; erlijioa gehiago da bizi-pena antolamendua baino. Modu sinkretikoak agertzen dira eta erlijioetako buruzgaien orientabideak ez dira aintzakotzat hartzen.

3. Neoliberalismoa.

70eko hamarkadan kapitalismoa bere azkenetan zegoela uste zen. Usteak erdi ustel, eta hiltzeko zorian zegoen agurea, hil ez ezik, osasunez eta kemezez beteta itzuli da. Ez da kapitalismo zaharraren molde berbera; kapitalismoa berritzen da, eta neoliberalismoa da kapitalismoa berritzen duenetako bat. 70eko hamarkadatik aurrera, Mendebaldeko ideologia nagusia izan da, Mendebaldeko gizarteak zuzendu dituen ideologia. 60ko hamarkadan pentsa zitekeenaren kontra, neoliberalismoa kapitalismo arrakastatsua izan da.

Neoliberalismoa modernitateko interpretazio bat da, beste interpretazio bat. Neurri batean, kontserbadorismotik hurbil dagoela pentsa genezake, baina ez da kontserbadorismo hutsa eta bereiztea oso garrantzitsua da, gaur egun gure gizartean eta kulturaren gertatzen ari denaren diagnostiko on bat egiteko. Kontserbadoreek bezala, neoliberalak ekonomia kapitalista eta zientziako eta teknikako emaitzak estimatzen dituzte asko. Gure gizarteak —Mendebaldeko gizarteak— giza historian egon diren gizarterik aurreratuenak dira; inoiz ez eta inon ez da hain ondo bizi izan. Beraz, neoliberalismoa sistema kapitalistaren defendatzaile sutsua da.

Baina neoliberalismoan modernitatearen bilakaerarekin kritikoak ere badira, ez daude ados modernitateak izan duen bilakaerarekin. Emaitzak oso onak izan dira ekonomiaren esparruan, inoiz baino hobeto bizi baikara. Emaitzak nahiko onak izan dira administrazio publikoan eta politikaren antolamenduan. Hala ere, neoliberalen diagnostikoaren arabera, Mendebaldeko gizarteak amildegira doaz; orain arte izan duten bidetik jarraitzen badute, berea egin du. Mendebaldeko gizarteak gaixorik daude, minbizia dute eta, minbizi hori sendatu ezean, desagertzea doaz.

Zertan datza arazoa? Minbizia esparru kulturean kokatuta dago. Kapitalismoaren sorrera ahalbidetzen duen giro kulturala desagertzen ari da; bestaldetik, sortzen ari den giro kultural berrian kapitalismoa ezin daiteke bizi eta garatu. Hasierako kapitalismoa etika pertsonal estu baten testuinguruan sortzen da. Pertsona prest zegoen lan gogorra eta metodikoa egiteko eta portaera pertsonala oso estua edukitzeko: diru-aurreratzailea, kontsumo murriztekoa, biziorik gabekoa. Baina teknikako eta ekonomiako garapenak beste bizitza-baldintza batzuk ekarri ditu, baldintza erosoagoak, hobeak; antzinako ohitura estuak lasaitu dira eta, neurri batean, desagertu dira; gizakia kontsumoaren sarean sartu da eta ez da inoiz asetzen. Sistema kulturalak eta sistema ekonomiko-administratiboak elkarren kontra egiten dute eta talka saihestezina da.

Baina jarrera kontserbadorearen kontra, neoliberalak modernitatea onartzen dute, ez dute atzera egin nahi modernitateko bilakaeran. Neoliberalak onartzen dute kulturaren batasuna behin betiko apurtuta dagoela; modernitateko bilakaera onartuz gero, kulturaren aniztasunarekin bizitzen ikasi behar da nahitaez. Baina aniztasun hori aprobeztatu behar da eta etika estuko eta klasikoko ekarpenak defenditu behar dira.

Neoliberalen proiektuan erlijioa oso presente dago. Mendebaldeko etorkizuna etikan dago; kapitalismoko sorrera ahalbidetzen duen ethos ez bada berreskuratzen, ezin daiteke mantendu Mendebaldeko kultura. Baina

neoliberalak badakite etika jakin baten defentsa eraginkorra ez dela erraza kultura oso plurala denean, hain zuzen ere, Mendebaldeko egoera. Etika puritana planteatzeko eta berreskuratzeko, erlijioaren ekarpen guztiz beharrezkoa da. Neoliberalak gizartearen erdi-erdian jartzen dute erlijioa; erlijioaren presentzia publikoa berreskuratu nahi dute.

Zer da erlijioa neoliberalentzat? Erlijio-kontzeptu hori ondoko ezaugarri hauek hornitzen dute:

- Bizitzaren ikuspegi transzendentea, gizabanakoari zentzua eskaintzen dion ikuspegia.
- Gizabanakoak bildu eta sozializatzen ditu erlijioak. Hortaz, gizabanakoak parte hartzen du «tarteko giza egituretan». Tarteko talde horietako harremanak hurbilak dira, *face to face*, egitura burokratikoak sorrarazten duen anonimotasunetik alde egiten laguntzen duten harremanak.
- Erlijioak, bizipen pribatua izan arren, gizarte modernoaren testuinguruan, zeregin konpentsatzaileak betetzen ditu.
- Erlijioak zilegitze-gaitasun nabarmena dauka. Gizartearen iraupenari begira oso ekarpen berezia egiten du erlijioak eta, zentzu horretan, ordezkazina da.
- Erlijioak morala eragiten du, eta moral zeharo adierazgarria da giza harremanetan.

Kontura gaitezen erlijioa modu horretan planteatzen baldin bada, azpimarratzen dena —beste gauza guztien gainetik balioesten dena— ez dela erlijioaren natura, erroa, edo erlijioa izatearen arrazoi sakona, baizik eta erlijioak betetzen duen zeregina: nihilismoak eta postmodernismoak dakarten hondamenditik ateratzeko zeregina.

Gizarteari oinarrizko lotura emateko, jatorrizko elkartasuna lortzeko —bai belaunaldi ezberdinen artean, bai gizartean dauden gizabanakoen artean—, apaltasuna eta besteengan interesatuta egotea behar-beharrezkoa dira; baina apaltasun eta interes hori sorrarazterakoan eta irauarazterakoan, erlijioak ez omen dauka lehia egiten dionik. Belaunaldien arteko loturari dagokionez, giza historiaren bilakaeran, erlijioa oroitzen den lekua izan da: erlijioari esker, iraganarekiko lotura agertzen da, tradizioa balioesten da eta orainaldi iheslari batean bizitzea saihesten da.

Neokonek ikusten duten bezala, Mendebaldeko gizarte modernoak, gizakia-
ren liberazioaren beharra baino gehiago, gizakia gizartearen baitan txertarazteko eta gorpuzarazteko beharra dauka. Behar horretan, erlijioak duen beste zeregin bat argitzen zaigu: giza desintegrazioarako joera duen Mendebaldeko gizarte teknokratikoan, pertsona biltzen duen etxeko sutondo-
txokoa izatea.

Horregatik, erlijio guztiak ez dira berdin balioetsiak; benetan balioetsia den erlijioa kristautasuna da: Mendebaldeko kulturean dauden mehatxuei oldartzeko gaitasuna kristautasunaren baitan ikusten dute.

Kristautasunak bete ditzakeen zereginei gagozkielarik, kristautasuna nola ulertzen den neokontserbadoreen artean agertzen zaigu.

Lehenengo eta behin, zilegitzeko zereginari buruz mintzatu behar dugu. Mendebaldeko esparruan garatzen ari den gizartearen antolakuntza zilegitzeko gaitasuna dauka kristautasunak. Azken finean, zilegitzeko lan hori kristautasunak bete dezake, ez beste inork, ezta beste ezerk ere: kristautasunak ematen dio bermea gizarte osoari.

Bigarren zeregina herritarren portaerarekin lotuta dago. Kristautasunaren ondareari kasu eginez, modernitateak eta postmodernitateak dena probatzeko, dena esperimatzeko, muga guztiak apurtzeko, gozamen hutsean geratzeko duten joerari aurre egin dakiok. Hortaz, sakrifizioaren zentzua, nor bere burua baztertzeko, edo behinik behin, erlatibizatze ariketa ahalbidetzen da. Gizartea gero eta indibidualistagoa den neurrian, desegiteko bidetik abiatzen da; ondorioz, giza harremanak ahultzen dira, gizartearen dinamismoa eta bizitzaren intentsitatea galtzen doaz. Jendea batzeko gaitasuna dela, helburu jakin baten atzean jendea lerratzeko indar bizi sakona dela, erlijioak balio integratzaile paregabea dauka.

Hirugarren zereginak badu zerikusirik transzendentziarekin. Kristautasuna transzendentziaren lekukoa da, eta, neokontserbadoreek daukaten ikuspuntutik, askatasun immanenteekin ez dator bat. Transzendentziaren lekukotasunari dagokionez, gizabanakoari zentzu berezia eskaintzen dio kristautasunak: oraingo egoera latzak gainditzen laguntzen dion bizipen erlijioso gozoa. Hori dela eta, ebanjelioaren interpretazio sozialaren kontra ari dira pentsalari horiek.

Kristautasuna, ondorioz, betetzen dituen zereginengatik balioesten da. Zeregin horiek oso publikoak dira, azken batean, giza sistema oso bat defenditu eta zilegitu behar baitu erlijioak. Defentsa hori esparru publikoan ez beste inon ezin daiteke bete. Sekularizazioaren prozesuaren kontra, neokontserbadoreek erlijioa esparru publikoaren erdigunean jarri nahi dute. Beraz, korrante horretan, erlijioa esparru pribatutik ateratzeko hautua egiten da. Erlijioarentzat neokontserbadoreek publikotasunaren aukera egiten dutenez gero, askotarikoa eta demokratikoa den gizartean, erlijioak izan behar duen presentzia publikoa nolakoa izan behar den argitu beharra dago: galdera gakoa da eta aurrez aurre ipintzen digute nahitaez. Begi-bistan dago publikotasunaren forma etiko puritanao bultzatzeko enpresarekin lotzen dutela. Berrito, erlijioaren funtzionalismoa preziatzen da: gizarte demokratiko, sekularizatu, ireki eta pluralean, etika puritanao txertatzea eta bultzatzea bilatzen dute. Beraz, publikoa, sekularizatua eta demokratikoa izan nahi duen etika puritanao bultzatzeko erlijioa bilatzen da.

4. Postmodernismoa.

Modernitateko krisia dela-eta, laugarren interpretazio kritikoa postmodernismoa da. Zalantzarik gabe, modernitateko testuinguruan sortzen den semea eta, aldi berean, modernitatearen kontra altxatzen den semea. Modernitateko arrazoia kritikatzeko du, baina postmodernitateko planteamendua ez da geratzen eremu teorikoan, modernitateko bizimodua ere kolokan jartzen du. Esan genezake postmodernitateko planteamenduak modernitatea bere azken ondorioetara eramaten duela; ildo horretan, postmodernitatea modernitateak egiten duen sekularizazioaren sekularizazioa da. Modernita-

teak erlijioa sekularizatzen duelarik, arrazoiak ordezkatzeko du erlijioaren zeregina: arrazoi ilustratua absolutu berria bihurtzen da. Postmodernismoak arrazoi hori sekularizatzen du, arrazoi ezin baitaiteke absolutua izan.

Baina azpimarratu behar dugu postmodernitatea ez dela jarrera filosofikoa edo teorikoa soilik. Eguneroko bizitzan agertzen da. Besteak beste, ohitura berriak sortzen dira gazteen artean. Horietako bat, hitz egiteko asko ematen duena, «litrona» deritzona dugu: kalean edan, lagunaren artean, giro bereziak sorraraziz. Badirudi ihes egiteko bideak zabaldu nahi dituztela, gizartearen errealitateak inposatzen dituen ezaugarrietatik alde egin nahi duen giroa sortu. Horrekin oso lotuta dago lagun-talde hurbilean sortzen den giro beroa, hurbila, atsegina, bizitzaren garratz eta mikatzetik alde egiten duena.

Aipatu dugun giroa, gazteen artean azaltzeaz gain, helduen artean ere nabaria da; balirudike helduak, une batez, idealez horditurik egon zirela, eta, 80ko hamarkadan, berriz, biharamunarekin daudela; nora heldu jakiteko iparrorratza galduta, eguneroko zereginetan murgilduta, ez dute beste gauzarik bilatzen.

Giro malenkoniatsua zabaltzen da nonahi. Zerbait galdu da eta galeraren kontzientzia zorrotza dago; lehengo garaietan izandako fedea eta esperantza ezin dira berreskuratu: ez dira itzuliko. Hala ere, galera horretan, postmodernistek badakite etenik ateratzen edo, beste modu batean esanda, alde positiboa ikusteko gai dira.

Bizipen malenkoniatsua eszeptizismoarekin lotzen da: garai eszeptikoetan bizi gara. Eta konfiantza falta hori ez da doako aukera, ezta arrazoirik gabeko erabakia ere. Ez, bizitzaren eskarmentuan oinarrituta dago, batez ere, ilustraziotik hona datorren bideari so egiten zaionean.

Bizitza publikoa antzezten da. Bizitza publikoak baditu bere pertsonaiak. Hedabideek ondo astintzen eta zabaltzen dute bizimodu hori. Hori da telebistan eta «espektakulu»ko munduan kontsumitzen dena. Jendeak badaki hori guztia erakusleiko bat baino ez dela, hori ez dela errealitatea. Politikoek, artistek, jende publikoak antzezten dute bizitza, baina antzeppen hori ikusteko da, edo denbora pasatzeko: antzeppen horretan ez dago sinesterik. Ongizatearen gizarateak, publizitateak, kanpaina bakoitzeko politikoak jendea hobeto bizi daitekeela erakusten saiatzen dira, eta horretarako, sasizorientasuna eskaini eta saltzen dute. Jendeak jakin badaki hori guztia ez dagoela, baina jokoan jarraitzen du.

Etika perspektibismoan kokatzen da. Balioek ez daukate oinarri finkorik, sustrai sakon eta iraunkorrik. Dena da ikusleak duen ikuspuntuaren arabera. Ikusleak badaki errealitateak alde asko dituela, eta ikuspuntu bakoitzetik alde horietako bat ikus daitekeela. Ondorioz, ezin daiteke inolako perspektibarik absolututzat har. Ezer absoluturik ezin egon daitekeenez gero, dena ikuspuntuaren arabera denez gero, denak balio duela eta dena berdina dela baieztatzeko jautzia ematen da erraz. Etika bakarra da ongizate pertsonala, eta hori harreman pertsonaletan bilatzen da; mundu txiki horretan etika partikularra aplikatzen da: ahalik eta ondoen igarotzea, ahalik eta gutxien pairatzea.

Esanak esan, ez dago sinesterik, hots, ez dago sinesmen finkorik. Antzina-ko sinesmen sendoek bazeukaten xarma eta erakargarritasuna, baina gaur egun ez dira posible. Ez da sinesten demokrazian, ezta iraultzan ere; ez da sinesten maitasunean, ezta justizian ere; ez da sinesten garapenean, ezta etorkizun hobean ere. Zerbait galdu da, baina oraingo ongizatea bilatzen da itsu-itsu. Giro malenkoniatsua da, baina, nonbait, malenkonia hori gazi-goza da, eztsua eta mingotsa batera: dagoenean bon-bon; eta, ez dagoenean, hor konpon.

Kalean eta eguneroko giroan bizi denaz gain, postmodernitateko teorikoek proposamen kritiko bat egiten dute; pentsamendu kritiko hori pentsatzeko beste modu bat da eta, eskuarki, ezaugarri berriak dakartza. Pentsamendu berri horrek ez dago arrazoiak liluratuta eta arrazoiak harago dauden ereduak landu nahi ditu. Esaterako, gozamina zeharo garrantzitsu bihurtzen da; lehen pentsamendu argia bilatzen bazen ere, orain pentsamendu kutsatua oso balioetsia da; orainaldiari eta berria denari adi-adi dagoen pentsamendua da. Ilustrazioko arrazoiak narrazio handien gustukoa bazen ere, orain narrazio txikiak, mugatuak, sinpleak eta iradokitzaileak bilatzen dira. Arazorik gabe onartzen da arrazoiaren funtsa galdu dela eta galera hori behin betikoa dela. Hori dela-eta, posible den etika bakarra behin-behineko etika da. Historiaren kontzeptua zalantzan jartzen den bitartean, estetikak oso garrantzi handia jasotzen du.

Postmodernitateak erlijioari egiten dion kritika

Postmodernitateko ordezkariak defenditzen duten ateismoa jarrera bihurtzen da. Jarrera horren mamia onartzean eta sakontzean datza postmodernitatea. Jarrera horren adierazpena kontuan izanik, postmodernitateak dakarren nihilismoa positiboa da: bizitza baieztatzen duena, kreaizailea, bizitzaren aurrean zabalik eta zain dagoena. Jainkorik gabe eta metafisikarik gabe, zentzu-iturri nagusia galduta egonik, zentzu falta horretan zentzu bila ibiltzea da oraingo zeregina; baina ez da zeregin agonikoa, gustura egiten dena baizik.

Nihilismo positibo horrek ateak zabaltzen dizkio erlijioari; baina kontuz, absolutua bereganatu eta maneiatu nahi duen erlijioa ezinezkoa da nihilismo positiboaren planteamendu horretan. Munduan beste modu batean egozteran gonbidatzen gaituzte postmodernitateko pentsalariak, eta ikuskera berri horretan erlijioak badu zirrikiturik. Mundua berriro sorgintzeko eta liluratzeko gaitasuna eta joera erakusten du pentsalarion nihilismo positiboak. Mundua berliluratzekoan, misterioaren presentzia igartzen da, misterioak erakusten ditu bere distirak —harrapatu ezin daitezkeen distirak—. Misterioa nonahi eta nolana dago. Edozeinek atzeman dezake. Politeismo paganoa bilakatzeko baldintzak emanda daude nihilismo positiboan.

Postmodernitateak egiten duen estetika-planteamenduan, erlijio-kritikan sakontzeko beste beta bat sortzen da. Aurreko paragrafoetan esan dugu postmodernitatearen estetika sublimearekin lotuta dagoela; eta gogoratu behar dugu, «sublime» hitza erabiltzen denean, aurkeztezinak eragiten duen bizipenari buruz mintzatzen ari garela. Planteamendu horrek, erlijioaren eremuan aplikatzen denean, Jainkoaren (absolutuaren) irudirik ez izatea

dakar. Jainkoaren aurkezpen edo irudi oro kritikagarria da. Logika horri jarraituz, absolutuari buruz mintzatu nahian, bide negatiboa baino ezin daiteke erabili; zer ez den esan genezake, baina ez, ostera, zer den.

Postmodernitateak erlijioari egiten dion kritika aintzat hartzeak zenbait ondorio dakarzkigu:

- a. Jainkoaren inolako irudikapenek ezin du islatu Jainkoa bera dena; Jainkoa edozein irudikapenetatik harago dago beti, ezin bilduzkoa da inolako iruditan. Jainkoaren eta gure kontzeptu guztien artean saihestu eta bete ezin daitekeen amildegi bat dago.
- b. Adierazpen erlijioso guztiak, guztiz ondo pentsatuak eta arrazonatuak izan arren, «pentsamendu ahula» deritzon horretan kokatu behar ditugu.
- c. Jainkoaz egin daitekeen edozein objektibizazioz harago, «pentsamendu ahula» deritzonaren onartzeak Jainkoaren absolutura zabaltzea ekar dezake. Jainkoa modu esperimentalean ezagutzeko atea zabaltzen ari gara Jainkoaren doakotasuna onartzen dugunean, eta Jainkoa bera ezertan ere ezin daitekeela funtzional bihurtu baieztatzen dugunean. Horixe da postmodernistek balioesten duten benetako bidea, Jainkoarenganako bidea.

2. Modernitatea eta kristautasuna Euskal Herrian

Gure ibilaldiko lehengo atala agorturik, bigarren geltokian pausatzeko ordua da. Paisaia luzea eta zabala ikusteko aukera izan dugu gure ibilaldiko lehengo parte horretan. Gure herria, berriz, txiki samarra da. Paisaia handi zabal horretan kokatuta egon arren eta, beharbada, paisaia horretatik kanpo ulertu ezin dugun arren, gure herria leku berezi bat da koadroari begiratzeko. Paisaia gure herritik behatzerakoan, azpimarratzen dugu ez dugula ikusten kanpotik, gure ikuspuntua koadro barnean kokatuta baitago. Hori horrela, hemen planteatzen dugun galdera-sorta sinplea da formulatzeko; erantzuteko, berriz, ez da hain sinplea beharbada: nolako izan da modernitatea Euskal Herrian? Euskal Herriko Eliza nola kokatu da modernitatearen aurrean? Zein da gaur egungo joera?

Orain eta hemen, gure helburua ez da galdera horiei sakontasun osoz erantzutea. Iradokizun batzuk eskainiko ditugu, beste asmorik gabe. Baina iradokizun horien azpian ideia bat dago: gure egoeraren deskripzioa edonola egin arren, ezin du jaso errealitate guztia bere konplexutasunean; beste zenbait arrazoiren artean, gure egoera ez delako finkatuta dagoen inolako irudirik, guztiz aldakorra den egoera korapilatsua baizik. Hori dela-eta, gure gaurko egoerari buruzko zenbait ezaugarri —ezaugarrien zerranda osatu nahi gabe— eskainiko ditugu eta, halaber, adibide adierazgarria bezala, bi egoera bereziren deskribapen laburra egingo dugu: batetik, erlijioaren presentzia gaur egungo euskal idazleen artean; bestetik, gazteak eta erlijioa.

Gure ustez, bi egoera horietan ondo asko islatzen dira ibilaldiko lehenengo partean aipatu ditugun tentsioak.

2.1. Euskal Herria eta modernitatea

Gai honi heltzerakoan, hiztegi-arazoa dugu. Euskal Herria diogunean, zeri buruz mintzatzen ari gara? Euskararen lurralde historikoan, zalantzarik ez, aniztasuna kokaturik dago antzinatik. Biztanleria plurala da eta dinamika kulturalak ere pluralak dira. Euskal Herriaren eta modernitatearen arteko harremanari buruz hausnartzeko orduan, ziur aski, ñabardura asko egin behar ditugu eta hemen esango dugunak ez du balio izango egoera guztietarako; mailaz maila eta egoeraz egoera zehaztapenak egin beharko dira; baina lan hori egiteko, noski, ez da hau leku egokia.

Oro har, esan genezake Mendebaldeko gizarteetan modernitateak izan duen ibilbide berbera izan duela Euskal Herrian, azken batean, Mendebaldeko beste gizarte bat baikara. Beraz, lehen deskribatu dugun prozesua gure artean ere gertatu da: modernitateak liluratua izatea, modernitateaz *desliluratzea*, modernitateari buruzko interpretazio kritikoak. Ildo horretatik joanik, esan dezakegu Euskal Herriko gizarte modernitate iragan dela, neurri batean, modernitateko lilura desgastatu dela eta, azkenik, modernitateari buruzko interpretazio kritikoak nagusitu direla gaur egun.

80ko hamarkadatik aurrera eta, batez ere, 90eko hamarkadatik aurrera, neoliberalismoaren interpretazioa eta neoliberalismoaren praktika nagusitu dira. Ekonomiari eta administrazio publikoari dagokienez, interpretazio horren nagusitasuna nahiko nabaria izan da; kulturari dagokionez, egoera nahasiagoa izan daiteke, baina, oro har, esan daiteke neoliberalismoaren eragin kulturala handitzen eta zabaltzen joan dela. Ekonomiaren eta administrazioaren esparruetan, pentsamendu bakarreko bidean sartuta gaude eta alternatibak eskaintzea ez da batere erraza. Gaurko krisi ekonomikoa eta finantza-esparruan agertu diren pitzadurak direla-eta, beste garai batean sar gintezke, behinik behin zenbaiten ustez, baina nire iritziz, oraindik, gauzak ez daude batere argi.

Lehen esan dugun bezala, sokatiran bezala, neoliberalismoa eta postmodernismoa kordel tenkatu berberean kokaturik, aurrez aurre daude. Postmodernismoak ez du eraginik izan ekonomian, baina kulturen sartuta dago. Eguneroko bizimoduan, kaleko bizimodu arruntean, ideal handiak galdu dira edo ezkutatu dira neurri handi batean.

Mugimendu kritikoak badira Euskal Herrian. Modernitate kritikoko esparrua nahiko nahasia da, edo hobeto esanda agian, nahiko plurala da. Modernitateak aldarrikatzen zuen liberazioaren premia bereganatzen dute mugimendu kritikoek eta, hari horretara, modernitateko ideal klasikoei eusten diete. Baina, oro har, kritikaren tresnak ez dira modernitateko ideologia klasikoak —batez ere marxismoak bete zuen zeregin hori—. Mugimendu kritikoek eztabaidan jartzen dituzten arazoak berri samarrak dira; besteak beste ondorengoak ditugu: genero-arazoak, ekologia-arazoak, emigrazioaren fenomeno eta ipar-hegoalde deritzon gaia, eta abar. Mugimendu kritikoek helburuak jartzen dituzte kolokan, hots, gizarte honetako garapen-ereduari lotzen zaion guztia. Beste gizarte-eredu bat bilatzen den neurrian, kontzientzia iraultzailea mantentzen duen esparru soziala da. Indarkeriaren arazoak berezi bihurtzen du esparru hori gure artean, une honetan dena sako berberean sartzeko joera nabaria baitago.

Azkenik, interpretazio kontserbadorea ez da agertzen argi eta garbi, baina interpretazio hori ez dela desagertu susmatzen dut. Gaur egun, neoliberalismoarekin lotuta agertzen da, erdi ezkutaturik, baina etorkizunari begira, zabaltzeko joera izan dezake agian.

Esandakoa oso generikoa da eta, gure gaia kontuan izanik, beste zehaztapen bat egitea komenigarria dela uste dut. Euskal Herria, edonola ulertu arren, esan dezakegu euskararen munduarekin lotuta dagoela, neurri batean behinik behin. Gure artean badago kultura bat euskaraz azaldu, euskaraz bizi, euskaraz komunikatu nahi duena. Puntu hori nahiko konplexua dela onartzen dut eta gogoeta honetako helburuaz gain egonik, ezin dut sakondu. Baina euskaraz azaltzen den kulturaren eta modernitatearen artean badago dinamika berezi bat, gure gogoetan kontuan hartu behar duguna: abangoardiak izan ezik, modernitateari ez dio harrera onik egin euskal kulturak..

2.2. Euskal Herria eta Eliza

Euskal Herrian dagoen Elizak prozesu sakona egin behar izan du oso denbora laburrean; beste lurraldeetan urteak eta urteak eskatu dituen prozesua hemen bi hamarkadetan egiten da.

Berandu sartzen da, baina berandu sartu arren, oso indar handiz sartzen da. Orain dela zortzi urte, Anjel Lertxundik eman zuen hitzaldi batean ondo deskribatzen zuen prozesu hori. Berak dio sekularizazioa berri samarra dela gure artean, 40 urte baino gehiagorik ez; baina berria izan arren, prozesua lurrikara itzela izan da, sekulako aldaketa ekarri baitu sekularizazioak. Lurrikara horrek oinarritzko ordezkapen bat ekarri du: erlijioak mundua interpretatzen zuen, baina, halako batean, ikaragarritzko ideologizazioak ordezkatu zuen erlijioa².

Modernitatearekin mintzatu nahia berandu agertzen da hemengo Elizan. Euskararen munduan azaltzen den Eliza oso tradizionala da eta tradizioarekin oso lotuta dago. 60ko hamarkadara arte, Europako beste lurraldeetan gertatu diren etendura erlijiosoak ez dira agertzen euskararen kulturaren. Badirudi denbora gutxian egin nahi dela modernitatearekin mintzatzeko lana; berandu hartu arren, indar biziz hartzen da lan hori; baina esanda dago, elkarrizketa hori hasten denean, jada, modernitatea hiltzorian dago. Elizako belaunaldi berriek, modernitatean ilustratuak izanik, modernitatearekin lotzen diren zubiak eraiki nahi dituzte. Modernitateko ideologiak onartzen dira hemengo arazoak ulertzeko eta konpontzeko. Baina modernitateko ideologiak, harrera ematen zaienean, zahartuta daude jada. Prozesu hori kleroak egiten du batez ere.

Gertatzen denaren deskripzioa —deskribatzea ez da azaltzea— modu simple batean honela egin dezakegu. Modernitatearekin lotzen den lehenengo belaunaldia, modernitateko ideologiak bereganatuz, berehalaxe sekularizatzen da eta erlijioak galtzen du bere zentzua. Aldi berean, modernitatea onartzeak ez dakar espero zen liberazioa. Ondorioa simplea da: eliza husten da eta modernitateko mezuan berehalaxe galtzen da fedea.

2. P. Esnalek aipatua ondorengoan: *Hemen*, 13 (2007), 57. or.

Baina erlijioa ez da desagertu. Modernitatea interpretatzen duten korronte guztiek bereganatu nahi dute erlijioaren zeregina.

2.3. Gaurko egoera

Lehen esan dugu gure egoera ez dela irudi finkatua, deskribapen zehatz batean atzeman daitekeena, prozesu korapilatsua baizik. Gure ustez, gaurko Euskal Herriko gizartearen eta erlijioaren —jakina, Eliza horren barne dago— arteko harremanak aztertzerakoan, ondorengo gaiak kontuan izan behar ditugu:

- a. Modernitateko proiektu askatzaileak porrot egin du, neurri handi batean. Gaur egun ez dago herri guztia —edo, agian hobeto badiogu, gehiengoa— biltzen duen proiekturik. Proiektu hitzak berak, ekonomiaren esparrutik eta mundu teknikoaren esparrutik kanpo, esanahi eskasa dauka. Modernitatearen proiektu askatzailearekin batera zihoan kristautasun modernoak, tradizionalak —premodernoak— bezala, arazo biologikoa dauka: kasu batean zein bestean, fedearen transmisioa oso ahula da. Gure kulturak ez du transmititzen kristautasuna. Belaunaldi berrientzat, oro har, kristautasuna ez da adierazgarria. Beraz, gaur egun kristau fede-transmisioaren katea apurtuta dagoela esan genezake eta, ezezaguna den faktore berri bat agertu ezean, etorkizuneko joera ildo horretatik joango da. Ziur aski, gure artean, kristautasunaren presentziak sekulako aldaketa izango du hurrengo 50 urteetan. Ziur aski, modernitateak bereganatu nahi izan duen kristautasunak eta kristautasun tradizionalak estrategia ezberdinak erabiliko dituzte gizarte honetan aurrera egiteko; alabaina, gaur egun dagoen joera aldatu ezean, etorkizun hurbil horretan, kristautasun biak gutxiengoak izango dira gizartearen.
- b. Arestian esandakoa txarto ulertuz, baten batek pentsa lezake erlijioa desagertzear dagoela. Gaizki ulertua izango litzateke hori; gaur egun azaltzen ari diren datuek eta datu horietan antzematen den joerak ez diote erlijioa desagertzera doanik, ez horixe. Lehen aipatu ditugun korronte politiko-kulturalen erakarpene oso handia da. Gure artean ere, modernitatearen aipatutako lau interpretazio horiek —gaur egun *irakurketa* hitza gero eta gehiago erabili ohi da— erlijioaren zeregina bereganatu nahi dute. Erlijioaren kontra egiten zen kritika desagertu da; antierlijioso amorratua izatea ez da batere arrunta, zenbait kasurekin topo egitea posible den arren. Ziur aski, erlijioaren berragerpen publiko hori beste lekuetan baino beranduago azalduko da Euskal Herrian; alabaina, gure artean ere, erlijioaren kontra zeuden aurreiritziak gaindituta daude neurri handi batean. Hala ere, susma dezakegu, beste lekutan gertatzen ari dena kontuan izanik, erlijioaren berragerpen hori ez dela izango eredu bakarrekoa, eredu askokoa baizik.
- c. Gizarte baten existentzia eta kultura baten existentzia identitate-arazoari lotzen zaizkio beti; identitaterik gabe ez dago, ez gizarterik, ez kulturarik, nahiz eta hiru kontzeptuok oso dinamikoak eta atzemateko gaitzak izan. Bestalde, kultura bat identitate-iturria da. Gure artean identitateari buruzko hausnarketa nahiko konplexua da. Tartean, arazo politikoak eta kulturalak ditugu. Indarkeriaren arazoak zauri sakonak utzi dizkigu eta uzten ari zaizkigu. Bake-bideak nola eraikitzen diren eta nola zeharkatzen diren oso gai gakoa da une honetan eta, zalantzarik gabe, etorkizun hurbilari begiratzen

diogularik. Identitateak ukatzen dituzten irtenbideek zauri gehiago ekarriko dituztela pentsatzeko arrazoirik dago; iragana oso adierazgarria da puntu horretan. Identitatea balio bat izan daiteke, baina identitate-hiltzaileak ere badira. Puntu horretan elkarrizketa sakon bat egitea ez da batere erraza, baina, aldi berean oso premiazkoa da une honetan. Kristautasunaren presentzia eta, oro har, erlijioaren presentzia baldintzatuta dago egoera horretan. Benetako erlijioak benetako bakearen aldeko lanean nabarmendu beharko lirarteke. Agian, benetako bakea da gako-gaia.

- d. Krisi ekonomiko sakon batean sartuta gaude. Krisi horren esanahia, oraindik, ez dago batere argi. Hor ere hainbat interpretazio kaleratu dira azken urte honetan. Batzuek neoliberalismoaren azkenaren hasiera ikusi nahi izan dute. Beste batzuek, berriz, abaguneko krisi iragankorra, doi batzuk ekarriko dituen, baina, azken batean, azaleko krisia. Interpretazioak interpretazio, iragarpen bat egin dezakegu: ahulenak eta pobreenak izango dira kalte-tuenak. Sistemako logika puntu horretan oso koherentea da beti. Euskal Herria ez dago herri pobreen artean, nahiz eta krisi honek gogor astindu Euskal Herria eta bertako pobreak bereziki.
- e. Gero eta globalizatuagoa den mundu honetan, lur urrunetako etorkinen presentzia ondorio ulergarria eta auresangarria da. Krisi ekonomikoari jarraituko dio etorkinen presentziak, baina ez dirudi desagertzeko azaleko egoera denik; berri samarra bai, etorkizun handikoa, ordea. Etorkinak gero eta sarriago azaltzen dira leku guztietan eta gure artean. Beste esanahien artean, etorkizunaren lekukoak dira; gure munduan dagoen sistema ekonomikoak eta bizimoduak dakartzaten ondorio latzak erakusten dizkigute etorkinek. Gure ekonomia gero eta globalizatuagoa izango da; gure kulturak gero eta eragin kultural handiagoak jasoko ditu. Etorkinak datoz ez itzultzeko; gure artean geratuko dira. Sareak eta harremanak egoera horretan nola eraikitzen diren erronka handi bat da guztientzat. Kultura pluralaren kudeaketa soziala ez da izango erronka samurra.
- f. Erlijioaren aniztasuna. Euskal Autonomia Erkidegoan erlijioen atlasa egiten ari gara. Nafarroan egin berria da eta laster argitaratuko da. Dagoeneko, gure artean dauden erlijioak eta konfesioak asko eta asko dira; gero eta gehiago. Hemen gertatzen ari den fenomeno oso adierazgarria da. Orain gutxi arte, erlijio bakarreko kultura ginen; kritikoentzat eta ateoentzat ere erlijio bakar hori zen erreferentzia, erlijioarekiko gutxiespena erlijio bakar horrekiko gutxiespena ohi baitzen. Kristautasuna txikitzen ari da; beste erlijioak zabaltzen ari dira. Gaur egun, egoera oso dinamikoa da; azkar aldatzen ari da, eta aldaketak, ziur aski, gero eta handiagoak izango dira.

2.4. Euskal literaturan islatzen den bilakaera

Gure gaia sakontzeko oso interesgarria da literatura, gure kasuan, euskaraz idazten diren nobelak eta, oro har, euskal literatura. Neurri batean, literaturan gizartea islatzen da, gizarteko ezaugarriak, hutsuneak, esperantzak, miseriak, eta abar. Literatura egiten duena egoera berezian kokatzen da. Batetik, originala izan nahi du, gauza berriak eta erakargarriak; bestela, ez du arrakastarik izango. Gauza berriak esaterakoan, gizartean gertatzen dena eta gizartean dauden joerak

kontuan izan behar ditu. Hari horretara, literatura abangoardiakoa da neurri batean. Euskal literaturaren mundua oso berezia da. Intuizio horri jarraituz, Joxe Arregik oso lan polita egin du (Arregi, 2007); erlijioaren inguruan zer gertatzen ari den kezkatuta dago Joxe eta, galdera horri erantzun nahian, gaurko euskal literaturan arakatzeko dabil. Gure gaian, euskal gizartea eta Eliza —oro har, kristautasuna—, zenbait puntuk zer pentsatzeko ematen digute.

a. Kultura konfesionala

Kristautasunari dagokionez, euskal literatura oraintsu arte —duela 40 urte arte— konfesionala izan da: kristaua eta kristautasunaren defendatzailea, neurri handi batean apologista izan da. Euskaldun eta fededun binomioa ondo dagokio euskal literaturari, duela 40 urte arteko literaturari, hots, lurrikara gertatu baino lehen.

b. Krisia eta fedea desagertzea: aurreiritziak eta jarrera negatiboak

60ko hamarkadan hasten dira lurrikara itzeleko lehendabiziko aztarnak. Mezua eta moldea aldatzen hasten dira. Fedeari dagokionez, dena zalantzan jartzen da. Beharbada, orduko gizartean ez zen oso nabaria, baina abangoardiako literaturan joera berriak islatzen hasten dira; hogeitau urte geroago oso arrunta izango zena, 60ko hamarkadaren amaieran azaltzen hasten da.

Literatura sekularizatzen da; idazleetako askok, gero eta gehiago, bere fedegabetasun erlijiosoa plazaratzen dute. Zenbait kasutan, kristau-fedea islatzen zuen literatura gutxiesten da. Zenbait kasutan ateismo militantea ere erakusten da. Halako batean fededunak diren idazleak bazterrean geratzen dira; edozein kasutan, euskal literaturan gai erlijiosoa desagertzen da; edo, agertzen denean, kristautasuna kritikatzeko da.

Badirudi modernitatea nahiko berandu heltzen dela euskal literaturara, baina, uholde bat bezala, indar handiz zabaltzen da txoko guztietara. Euskal gizartean testuinguru berri batean dago kristau-fedea: erlijioaren eta kulturaren arteko etendura latza eta guztiz arriskutsua agertzen da.

c. Beste jarrera bat agertzen ari da

Une batean, erlijioaren kontra gogor astintzen da, oso modu esplizituan. Gero gaia desagertzen da, fedearen kontua ez da garrantzitsua, bazterreko gaia.

Orain Joxe Arregik euskal idazleei fede-erlijioari buruzko galdera egiten denean, zenbait ustekabeko gertatzen dira: lehenengo eta behin, askok erantzuten dute; bigarrenik, erantzuna ez da formala, heziera onekoa, baizik eta, kasurik gehienetan, oso mamitsua; hirugarrenik, fededun ez direnak ere interesaturik daude gai honetan; laugarrenik, gai erlijiosoaz mintzatzeko moldeak aldatu dira.

Joxek egiten duen sailkapena hona aldatzea interesgarria izan daiteke; agian, gertatzen ari denaren mapa izan baitaiteke: batetik, kristautasunetik eta erlijiotik joan direnen multzoa agertzen da; beste aldetik, kristautasunetik joan zireneka eta itzuli direnena; azkenik, kristautasunetik beste erlijio batera joan direnena.

d. Bizipen espiritualala balioesten da

Espiritualitatea egarri bat da idazle gehienetan. Betidanik sinestedunak izan direnen artean, espiritualitate-sentikortasuna berritzen da, edukiari eta formari dagokienez, ekarpen berriak sortzen dira. Jainkoaz bizipen pertsonala izateko premia eta Jainkoa modu pertsonalean izendatzeko beharra agertzen da. Bestaldetik, kultura plural honetan galdera berri bat sortzen da: ea nola azal daitekeen bizipen erlijiosoak; azaldu modu ulergarrian, noski.

Ekialdeko espiritualitatera emigratu direnen multzoa ez da txikia. Multzo horretan direnen artean, espiritualitate berri bat bilatzen da, Jainkoari buruzko irudi berriak. Transzendentziari buruz galdera berriak egiten dira.

Askotan, eta kontraesankorra iruditu arren, sinesten ez dutenek Jainkoari buruz, edo transzendentziari buruz behinik behin, nolabaiteko esperientzia azaltzen dute.

Oro har, oso argi dago zer Jainkok, edo Jainkoren zer irudik galdu duen sinesgarritasun guztia.

e. Dena den, instituzioaren krisia.

Baten batek pentsa lezake erlijio-krisiaren ondotik berriro elizak beteko direla, jendea elizara itzuliko dela. Batetik, susma dezakegu gizarte sekularizatuan erlijioak bazterreko leku ikusezinetik alde egiten duela; beraz, susma dezakegu gizarte sekularizatuan ere erlijioak interes berria erakartzen duela, nolabaiteko zentroa eskuratzen duela. Baina agertzen ari den erlijioa ez lehen ezagutu duguna. Giro erlijiosoak, interes erlijiosoak agertzen ari da, baina horrek ez du esan nahi guk ezagutu dugun erlijioaren itzulera.

Gaur egun agertzen ari den sentimendu erlijiosoak arazo handi bat dauka instituzioarekin. Hari horretara, giro erlijiosoak nahiko antinstituzionala eta antisistema da; nahiko sinkretikoa, pertsonala eta subjektiboa.

2.5. Gazteen mundua eta erlijioa

Gai honen inguruan asko da azken urteetan argitaratu dena. Bertatik bertara jarraipen bat egiten ari da eta azken urteetako joerak oso markatuta daude. Inkestek, oro har, eskaintzen dizkiguten datuak oso argi daude. Lehenengo datua, ondorio askokoa eta, agian, etorkizun hurbilean izango dugun gizartearen iragarpena: gaurko gaztea, soziologikoki ez da, ez kristaua, ez erlijiosoak —erlijiozalea—. Baina, horrekin batera eta berehalaxe, zehaztapen bat gaineratu behar dugu: ez dago erlijioaren kontra, ez da ideologia antierlijiosokoa. Hortaz, erlijioak ez du esanahi berezirik gazteen bizitzan eta bizimoduan; neurri handi batean, ikusezina da erlijioa. Dena den, bada puntu bat, zeinetan gazteen jarrera ez den batere neutrala: instituzioa. Puntu horretan inkestek datuek aho batez islatzen dute instituzio erlijiosoarekiko gaitzespena; gainera, gero eta ozenagoa, gero eta zabalagoa. Instituzio erlijiosoarekiko gaitzespen hori instituzio guztien kontrako jarrera hedatuaren testuinguruan ulertu behar dugu. Gazteen mundua, oro har, nahiko immanentea da; mundu horretan transzendentziaren agerpena —eta ez gara mintzatzen ari transzendentzia erlijiosoari buruz soilik— gero eta zailagoa, gero eta ulertezina-

goa da. Azkenik, eman dezagun beste datu bat, inkestetan azaltzen dena eta zer pentsa ematen duena: elkartasun-balioa gero eta gutxiago balioesten da. Gazteen munduak gero eta indibidualistago izateko joera du; gazteak kezkatzen dituzten arazoak mundu afektiboarekin eta ziurtasun materialarekin lotuta daude gehienbat.

Aurreko paragrafoan deskribatutako egoera horrek ondorio asko ditu kristaua izan nahi duen gaztearentzat. Lehen —esaterako, orain dela hogeita hamar urte—, gehiengo soziologikoa kristaua zen; orain, gehiengo soziologikoa ez-erlijiosoa da. Giro ez-erlijiosoak eragin handia du. Gazte bat sinesteduna bada, oso pertsonalitate handikoa izan beharko du bere sinesmenaren berri emateko eta bere sinesmenari berari eusteko.

Bestaldetik, gazteen artean, kristautasunari buruzko interpretazio profetikoa ahultzen joan da. Aspaldidanik, kristau gazteen multzoa gutxiengo bat da; baina gutxiengo horren barnean, kristautasunari buruz interpretazio profetikoa egiteko joera nagusia zen, edo behinik behin, erakarpenik nabariena zeukan joera. Baina joera hori murrizten joan da; sentikortasun hori ahultzen ari da gizartearen eta gazteen artean. Horrekin batera, ziurtasun pertsonala eskaintzen duen kristautasun-eredua gero eta arrakastatsuagoa izan daiteke gazteen artean —gutxiengo bat dela kontuan izaten beti—. Joera hori ulergarria izan arren, ondorio pentsatzekoa da: kristautasuna ez doa gutxiengo soziologikoa izatera soilik, getho bat izatera baino.

3. Etorkizunari begira fededunentzako erronkak; fedezko jarrerak

Etorkizuna ez dugu ezagutzen. Iraganean egin diren aurreikuspenak irakurtzen ditugunean, gehienetan nahiko inozoak zirela eta nahiko desbideratuta zeudela atzematen dugu. Zenbaitetan, berriz, oso intuizio ederrak eta baliotsuak zirela onartzen dugu. Dena den, historiako edozein unetan geure buruari galdetzen diogu: orain bidea nondik nora doa? Etorkizuna nolakoa izango den igarri nahi gabe, gaurko egoeran agertzen diren datuetan oinarrituta, nik antzematen ditudan zenbait erronka aipatuko ditut:

3.1. Fedea pertsonalizatzea

Etorkizunean giro erlijiosoa izan edo ez izan, berdin dio, kristau-fedeak edo oso pertsonalizatuta egon beharko du edo desagertzeko arrisku bizia du. Etorkizun hurbilean giro soziala ez da izango gai kristau-fedea mantentzeko, ez da posible izango kristau-fede soziologikoa; gaur egun, gazteen artean ez da posible fede soziologiko hori. Azpimarratzen dut berriro horrek ez duela esan nahi erlijioa desagertuko denik.

Beraz, fedea pertsonalizatzea ahalbidetzen duten bitartekoei buruz galdetu beharko dugu. Ikuspuntu horretatik, galderarik interesgarriena ez da izango zenbat garen edo zenbat geratzen garen, fede-esperientziaren kalitateari buruzko galdera baino.

3.2. Gethoa saihestea

Kristauen multzoa gutxiengo bat izanik eta giroa arrotza izanik, gethoaren tentazioa oso handia da. Gethoan, komunitatean ez daudenekiko harremanak edo eteten dira, edo harreman gatazkatsuak planteatzen dira (aldika, defenditzea eta erasotzea). Gethoan fedearen eta kulturaren arteko loturak apurtzen dira. Zubi horiek behin eta berriro eraikitzen jakitea oso erronka handia izango da.

3.3. Giro osasuntsuak zabaltzea

Kristau-komunitatearen barnean dauden harremanak oso inportanteak izango dira. Harremanen kalitatea oso esanahitsua izango da. Batetik, harremanak pertsonalizatuta badaude, partaideak gustura sentituko dira. Bestaldetik, ez da nahiko pertsonalizatzearekin; harremanak osasuntsuak izan beharko dira; giro osasuntsuak behar ditugu fedea sakontzeko eta heltzeko.

Giro horiek osasuntsuak eta biziak diren neurrian, testuinguruan erroturik egongo dira, testuinguruarekin hitz egiteko gaitasuna izango dute.

3.4. Erliujoen aniztasuna

Ziur aski, erlijio kopurua gero eta handiagoa izango da. Erliujoen arteko elkarrietzeta erraztea eta ahalbidetzea oso erronka handia izango da. Erronka ez da erraza baina bai beharrezkoa. Elkarrietzeta hori egitea ez bada lortzen, gizarteko bakea bera kolokan egongo da.

3.5. Sareak indartzea

Giro kulturala gero eta indibidualistagoa da. Kristau-komunitateak joera horri jarraitzen badiu, berea egin du, ez dago etorkizunik berarentzat. Sareak zabaltzea eta indartzea oso premiazkoa da. Sarea egiteko ahalegin horrek maila ezberdinak izan ditzake: batetik, kristau-komunitateen arteko sareak; bestetik, elkartasuna lantzen dutenen sarea. Bakeak, lehen esan dugun bezala, leku berezi bat izan behar du sare horiek garatzean.

Ohar bibliografikoa

- Arregi, J. (2004): *Oinatzak bidean. Erliujoen historia*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2007): *Jainkoaz galdezka. 40 euskal idazleren erantzunak*, Alberdania, Irun.
- Arregi, J. eta Jimenez, E. (2007): *Jainkoa bai ala ez? Erliujori buruz eztabaidan*, Elkar, Donostia.
- Berger, P.; Davie, G. eta Fokas, E. (2008): *Religious America, Secular Europe? A theme and Variations*, Ashgate, Aldershot / Burlington.
- Casanova, J. (2000): *Religiones públicas en el mundo moderno*, PPC, Madril.
- Díaz-Salazar, R. (2007): *Democracia laica y religión pública*, Taurus, Madril.
- Habermas, J. (2001): *Israel o Atenas: ensayos sobre religión, teología y racionalidad*, Trotta, Madril.
- , (2006): *Entre naturalismo y religión*, Paidós,artzelona.
- Kepel, G. (1995): *Las políticas de Dios*, Anaya & Mucnik,artzelona.
- Mardones, J. M. (1999): *Síntomas de un retorno. La religión en el pensamiento actual*, Sal Terrae, Santander.

- , (2006): *La transformación de la religión. Cambio en lo sagrado y cristianismo*, PPC, Madril.
- Irtastortza, T. (2008): *Izendaezinaz*, Pamiela, Iruñea.
- Ratzinger, J. eta Habermas, J. (2006): *Dialéctica de la secularización. Sobre la razón y la religión*, Encuentro, Madril.
- Susin, L. C. (2007): *Teología del pluralismo religioso: el nuevo paradigma*, Concilium 319, Verbo Divino.
- Vidal Fernández, F. eta González Carvajal, L. (2005): *Medios de comunicación y religión en España: una investigación sobre el estado de la comunicación mediática Iglesia-sociedad*, SM, Madril.

